

Elurra eta izotzaren eragina baratzean

Barazkien baldintzatzaile nagusia ingurune bateko klima izan ohi da eta horregatik baratzeazintzan jarduteko gure eguraldiaren ezaugarriak ezagutzeak beharrezkoa izan ohi da. Gure kantauriar isurialdean klima ozeanikoa dugu; ondorioz urte guztian zehar bataz beste baldintza heze eta epelak ditugu, baina urtaro batetik bestera eta ingurunearen baitan, ezaugarri hauek aldakorrak dira.

Gure ingurunean, urtean zehar, bataz beste elurte bat izan ohi da eta izotz aro nagusiak, udazken bukaeratik udaberri erdira luzatu ohi dira.

Orokorrean izotza eta elurra naturan onuragarriak dira:

- Izotzak lurreko izurrite eta gaitzak deuseztatzen ditu.
- Udazken neguan lurra goldatu ezker izotzak lur zokorrak xehatzen laguntzen du.
- Elurrak ura lurrera modu gradual batean barneratzen du eta ondorioz barazkiek ur hau hobeto aprobetxatu ahal dute.

Barazkiei dagokienez neguko barazkiak baldintza hotzetara egokituak egon ohi dira eta muturreko baldintzak ez diren bitartean hauentzat elurra eta izotzak ez dira aparteko eragozpena. Honela elurra barazkientzat ez da txarra, izan ere oihal baten antzera estaltzen ditu barazkiak eta barazkiak termikoki babestuak geratzen dira.

Baratzean arazo nagusia udaberriko izozteak izan ohi dira izan ere urte sasoi honetan udarako landaketa berriak burutzen dira eta apirila arte izotz arriskua izaten dugunez landaketak kaltetzeko arriskua dugu.

El efecto de la nieve y las heladas en la huerta

El mayor condicionante de las hortalizas es el clima del entorno; por ello, a la hora de practicar la horticultura, debemos conocer las peculiaridades del mismo. En nuestra vertiente cantábrica tenemos un clima oceánico, por lo que a lo largo del año solemos tener temperaturas templadas y mucha humedad. No obstante, y dependiendo de las zonas y de las estaciones, éstas pueden variar.

Por regla general, solemos tener una nevada anual, mientras que las heladas se producen en el período comprendido entre finales de otoño y mediados de primavera. Básicamente, tanto las nevadas como las heladas ayudan a la naturaleza:

- Las heladas evitan las plagas y enfermedades de la tierra.
- Si aramos la tierra en otoño-invierno, las heladas nos ayudan a deshacer los terrones.
- El agua procedente de la nieve penetra gradualmente en la tierra, por lo que las hortalizas la aprovechan mejor.

Las hortalizas de invierno suelen estar aclimatadas al frío, por lo que si éstas no son extremas, la nieve y las heladas no les supondrán inconveniente alguno. La nieve no es perjudicial para las hortalizas, pues las cubre como un manto y las protege térmicamente.

El problema surge con las heladas de primavera, puesto que en esas fechas es cuando realizamos las primeras plantaciones del verano, de modo que las heladas tardías, que se pueden producir hasta abril, son las que pueden llegar a estropear los cultivos.